## Zk-4096

9/2001 DEKRETUA, uztailaren 16koa, lehendakariarena, Jaurlaritzaren lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua izendatzeari buruzkoa.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 33.2 artikuluak eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.b), 17., 19., 23. eta 25. artikuluek egozten dizkidaten eskumenen arabera, hauxe

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Idoia Zenarruzabeitia Beldarrain andrearengan ematen diren merezimendu eta tasunak kontuan hartuz, Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburu izendatzen dut.

***2. artikulua.***– 1.– Jaurlaritzaren lehendakariordeak, lehendakariaren gidaritzapean, Jaurlaritzaren jardun orokorra eta arlokakoa koordinatuko ditu, sailburu bakoitzak bere jardun-arloak kudeatzeko dituen eskumenei eta erantzukizunei ezer kendu gabe.

2.– Bere eginkizunak betetzeko, Jaurlaritzari buruzko Legeko 8. artikuluko d), f), h), i), j) eta k) idatz-zatietan ezartzen diren ahalmenak delegatzen dira Lehendakariordearengan.

3.– Era berean, honako egiteko hauek beteko ditu Lehendakariordeak:

a) Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren buru izatea.

b) Estatuarekiko Eskualdaketetarako Bitariko Batzordearen eta Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien arteko Bitariko Batzordearen buru izatea Eusko Jaurlaritzaren izenean eta Eusko Jaurlaritzako sailetako jarduerak koordinatzea xede horietarako.

c) Indarrean dagoen arautegiak ematen diezazkion gainontzeko guztiak.

***3. artikulua.***– Jaurlaritzaren lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua Jaurlaritzaren idazkari izendatzen da.

***4. artikulua.***– Bere egitekoak burutzeko, Jaurlaritzaren lehendakariordeak laguntza egitura organiko bat edukiko du, Lehendakariaren dekretu baten bidez zehaztuko dena.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Legeetan xedatutakoaren arabera dagozkion eginkizunez baliatzerakoan lehendakariordeak eman ditzan aginduak bete ditzatela agintzen diet agintari eta herritar guztiei, berari eta duen aginteari zor zaien begirunea erakutsiz.

## N°-4096

DECRETO 9/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de nombramiento de la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública.

En virtud de las facultades que me atribuyen el artículo 33.2 del Estatuto de Autonomía y los artículos 8.b), 17, 19, 23 y 25 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno

DISPONGO:

***Artículo 1.***– En consideración de los méritos y cualidades que concurren en Dña. Idoia Zenarruzabeitia Beldarrain, vengo en nombrarla Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública.

***Artículo 2.***– 1.– La Vicepresidenta del Gobierno ejercerá las funciones de coordinación general y sectorial de la acción del Gobierno bajo la dirección del Lehendakari y sin perjuicio de la competencia y la responsabilidad de cada Consejero en la gestión de sus respectivas áreas de actuación.

2.– Para el desarrollo de sus funciones se delegan en la Vicepresidenta del Gobierno las facultades previstas en los apartados d), f), h), i), j) y k) del artículo 8 de la Ley de Gobierno.

3.– Asimismo, la Vicepresidenta del Gobierno ejercerá las siguientes funciones:

a) Presidir el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

b) Presidir, en nombre del Gobierno Vasco, la Comisión Mixta de Transferencias con el Estado y la Comisión Mixta Gobierno Vasco-Diputaciones Forales y coordinar a tales efectos las actuaciones de los diferentes Departamentos.

c) Todas aquellas otras que le atribuya la normativa vigente.

***Artículo 3.***– Se designa a la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública, Secretaria del Gobierno.

***Artículo 4.***– Para el desarrollo de sus funciones la Vicepresidenta del Gobierno dispondrá de una estructura orgánica de apoyo que se determinará mediante un Decreto del Lehendakari.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Mando a todas las autoridades y ciudadanos que cumplan las órdenes que dicte en el ejercicio de las funciones que le corresponden con arreglo a las Leyes, prestando el debido respeto a su persona y autoridad.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egun beretik izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko uztailaren 16an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de julio de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## Zk-4097

10/2001 DEKRETUA, uztailaren 16koa, lehendakariarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua izendatzeari buruzkoa.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 33.2 artikuluan eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.b) artikuluan ematen zaizkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu izendatzea Sabin Intxaurraga Mendibil jauna, berak egindako merezimenduak eta dituen gaitasunak kontuan hartuz.

Legeetan xedatutakoaren arabera dagozkion eginkizunez baliatzerakoan horrek eman ditzan aginduak bete ditzatela agintzen diet agintari eta herritar guztiei, berari eta duen aginteari zor zaien begirunea erakutsiz.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko uztailaren 16an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## N°-4097

DECRETO 10/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de nombramiento del Consejero de Educación, Universidades e Investigación.

En virtud de las facultades que me atribuye el artículo 33.2 del Estatuto de Autonomía y el artículo 8.b) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

DISPONGO:

*Artículo único.*– En consideración de los méritos y cualidades que en él concurren, vengo en nombrar a D. Sabin Intxaurraga Mendibil Consejero de Educación, Universidades e Investigación.

Mando a todas las autoridades y ciudadanos que cumplan las órdenes que dicte en el ejercicio de las funciones que le corresponden con arreglo a las Leyes, prestando el debido respeto a su persona y autoridad.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de julio de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## Zk-4098

11/2001 DEKRETUA, uztailaren 16koa, lehendakariarena, Herrizaingo sailburua izendatzeari buruzkoa.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 33.2 artikuluan eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.b) artikuluan ematen zaizkidan eskumenez baliatuz, hauxe

## N°-4098

DECRETO 11/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de nombramiento del Consejero de Interior.

En virtud de las facultades que me atribuye el artículo 33.2 del Estatuto de Autonomía y el artículo 8.b) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.